
Gradu Amaierako Lana / Trabajo Fin de Grado

Haur Hezkuntzako Gradua / Grado en Educación Infantil

Hezkuntza eta gizartea:

GENERO DESBERDINTASUNAK ESKOLAN

Egilea / Autora:

Maitane Fuentes Bozal

Zuzendaria / Directora:

Iraide Fernández Aragón

Gasteizen, 2021ko ekainaren 11a

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4.or
2. Gaiaren justifikazioa.....	5.or
3. Helburuak eta metodologia.....	6-8.orr
3.1. Helburuak.....	6.or
3.2. Metodologia.....	7-8.orr
4. Marko teorikoa.....	9-20.orr
4.1. Sexua eta generoa.....	9.or
4.2. Sozializazio agenteak eta genero eragileak.....	9-12.orr
4.2.1. Eskola.....	10-11.orr
4.2.2. Familia.....	11-12.orr
4.2.3. Komunikabideak.....	12.or
4.3. Curriculum esplizitua eta curriculum eskutua.....	13-15.orr
4.3.1. Curriculum esplizitua.....	13-14.orr
4.3.2. Curriculum eskutua.....	14-15.orr
4.4. Genero rolak eta estereotipoak.....	15-18.orr
4.4.1. Hizkuntza-alborapena.....	15-16.orr
4.4.2. Estereotipoak.....	16-17.orr
4.4.3. Ikusezintasuna.....	18.or
4.4.4. Desoreka.....	18.or
4.4.5. Irrealtasuna.....	18.or
4.4.6. Zatiketa.....	18.or
4.5. Hezkidetza.....	19-20.orr
5. Testuingurua.....	21-23.orr
6. Emaitzak.....	24-37.orr
6.1. Behaketa sistematikoa.....	25-31.orr
6.1.1. Irakasleak.....	25-27.orr
6.1.2. Ikasleak.....	27-28.orr
6.1.3. Materialak.....	29-30.orr
6.1.4. Familiak.....	30-31.orr
6.2. Galdetegia.....	32-37.orr
7. Ondorioak.....	38-40.orr
8. Bibliografia.....	41-42.orr
ERANSKINAK.....	43-46.orr
1. Eranskina: Galdetegia egiteko egileak diseinatutako fitxak.....	43-45.orr
2. Eranskina: Behaketa sistematikoa egiteko egileak diseinatutako taula.....	46.or

HEZKUNTZA ETA GIZARTEA

Genero desberdintasunak eskolan

Maitane Fuentes Bozal

UPV/EHU

Lan honen helburu nagusia da egiaztatzea gizartean ematen diren genero-desberdintasunak genero-estereotipoen bidez ikasgelan errepikatzen diren. Horretarako, Haur Hezkuntzako 3 urteko gela erreal batean ikerketa egin dugu behatzeko zenbateraino dituzten genero estereotipo eta rolak barneraturik. Erabilitako metodologia mistoa izan da, kualitatiboa eta kuantifikatiboa; zehazki, behaketa sistematikoa eta galdetegia izan dira erabilitako tresnak. Gradu Amaierako lan hau egoera erreala behatu eta gero lortutako emaitzetan oinarrituko da eta ostean, ondorioak aterako ditugu hezkidetzari esker berdintasun handiagoko gizartea lortzeko lehen urratsak emateko.

Hitz-gakoak: generoa, sexismoa, estereotipoak, hezkidetzari, rolak

El objetivo de este trabajo es analizar las diferencias de género y los estereotipos que se dan en las aulas. Para ello, se ha realizado un diagnóstico de un aula real de 3 años de Educación Infantil, para observar hasta qué punto tienen interiorizados los estereotipos y roles de género. La metodología empleada para la elaboración del siguiente trabajo ha sido mixta, es decir, cualitativa y cuantificativa; las herramientas que se han utilizado para llevar a cabo esta investigación han sido la observación y el cuestionario. Este trabajo de fin de grado se basa en los resultados adquiridos en la investigación y a continuación, se ha llegado a unas conclusiones con el fin de dar los primeros pasos hacia una sociedad más igualitaria.

Palabras clave: genero, sexismo, estereotipos, coeducación, roles

The aim of this paper is to analyze gender differences and stereotypes in classrooms. To do this, a diagnosis was made of a real 3-year classroom of Early Childhood Education, to observe to what extent stereotypes and gender roles are internalized. The tools that have been used to carry out this research have been observation and questionnaire. This work is based on the results acquired and then conclusions have been reached in order to take the first steps towards a more egalitarian society.

Key words: gender, sexism, stereotypes, coeducation, roles

1. Sarrera

Iritzi publikoko sektore batzuen artean ohikoa da gizonen eta emakumeen artean erabateko berdintasuna dagoela pentsatzea, baina sxismoa eta matxismoa oraindik ere presente daude gure, hainbat ikerketak dioten bezala (Emakunde, 2019). Horregatik esparru honetan aldaketak egitea nahitaezkoa da gizarte ekitatiboa lortzeko.

Gradu Amaierako Lan (edo GrAL) honen bidez, gaur egun eskolan ematen diren genero rolak eta estereotipoak aztertuko ditugu Haur Hezkuntzako egoera erreal baten behaketaren bidez. Horretarako, Haur Hezkuntzako gela bateko irakasleak, ikasleak, materiala eta familiak kontuan izango ditugu.

Lanarekin hasteko gaiaren justifikazio pertsonala eta akademiko-profesionala aipatuko da. Gero helburu orokorra eta helburu zehatzak eta metodologia aurkeztuko dira. Jarraitzeko, marko teorikoa osatzeko lehenik eta behin sexua eta generoaren arteko desberdintasunak definituko dira. Ondoren, sozializazio agenteak eta genero-eragileak aurkeztuko dira (hain zuzen, familia, eskola eta komunikabideak). Jarraitzeko curriculum ezplizituaren eta curriculum eskutuaren inguruan arituko gara. Gero, gizartean presente dauden genero rolak eta estereotipoak azalduko dira. Marko teorikoarekin bukatzeko arazoa solbatzeko bideari buruz hitz egingo da, hau da, hezkidetzaz.

Egoera errearen azterketan sartuta, lehenik eta behin, testuinguratuko gara bigarren mailako datuak kontuan hartuz Euskal Herriko egoera ezagutzeko. Lanaren garapenean Haur Hezkuntzako gelan behatutakoaren berri emango da eta emaitzak hartuta, ondorioak ateratako dira. Azkenik, lanaren mugei buruz hitz egingo dut, prozesu osoa kontuan hartuz autokritika egiteko.

Lanari amaiera emateko erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak atxikituko dira txostenaren azken orrialdeetan.

2. Gaiaren justifikazioa

Gaur egun feminismoaren gaia pil-pilean dago eta bizi garen gizarte patriarkalaren ondorioz, egoera sexista pila bat bizi izan ditut txikia nintzenetik eta ez nituen ulertzen. Gizarte honetan bizitzeak eragiten du konturatu gabe genero estereotipoak eta rolak barneratzea eta errepikatzea. Garrantzitsua da honetaz ohartzea dekonstrukzioa hasteko.

Lan honen gaia (hezkuntza eta gizartea: genero desberdintasunak eskolan) interesgarria iruditzen zait bai pertsonalki, bai akademikoki eta profesionalki. Irakaslea izango naizenez eta hezkuntzak paper garrantzitsua duenez genero ezberdintasunen transmisioan, ezinbestekoa da gaiaren inguruan formatzea gizartean aldaketa gerta dadin.

Egia da gero eta aurrerapen gehiago daudela emakumeon eskubideen eta berdintasunaren alde, baina, oraindik bide luzea daukagu aurretik. Hezkuntzan lan egiten dugunok etorkizuneko belaunaldiak hezteko arduradunak gara eta beraz, arazo sozial hau ikusgarri egiteko eta gizartea aldatzeko arduradunak gara ere. Haur hezkuntzako irakaslea izango naizenez, kezkatzen nau nola sortzen diren genero desberdintasunak eta zergatik oraindik gizarteak transmititzen dituen. Hezkuntzan genero desberdintasunak gaindituta daudela pentsatzen da, baina arazo honen garrantziari ikusgarritasuna eman behar zaio.

Arrazoi hauengatik oso gai interesgarria eta garrantzitsua iruditu zitzaidan lana egiteko eta gainera, lan enpirikoa denez, haur hezkuntako gela erreal batean ikerketa egitea oso baliagarria dela uste dut, gaur egungo egoera nolakoa den ikusteko.

3. Helburuak eta metodologia

3.1 Helburuak.

Lan honen helburu orokorra gizartean ematen diren genero-desberdintasunak genero-estereotipoen bidez ikasgelan ea adierazten eta errepikatzen diren aztertzea da.

Helburu nagusi hori lortzeko, helburu zehatz hauek bete behar bira:

- Ikasgelan genero-estereotipoak transmititzen diren egiaztatzea
- Genero desberdintasunak nola transmititzen diren aztertzea.
- Irakasleak genero-estereotipoak transmititzeko prozesu horretan duen papera aztertzea.
- Familien barruko dinamikak aztertzea genero-desberdintasunen arloan..
- Gelako materiala aztertzea, baita hurrek materialarekin dituzten harremanak.
- Generoaren gaia gelan lantzen den edo ez ikustea, eta lantzen bada, nola.

Lan honekin Haur Hezkuntzako gela erreal batean gizarteak transmititutako genero rola eta estereotipoak aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, jada hain txikiak izanda genero desberdintasun horiek barneraturik dituzten a la ez eta zenbateraino ikusiko da. Genero estereotipoak eta rola barneraturik badituzte, behatuko da ia hauek errepikatzen dituzten. Honekin batera ere irakasleen eta familien papera behatuko da, baita gelako materiala, arropak eta abar.


Laburbilduz, gure helburuak lortzeko behaketa-sistematikoa eta galdetegia erabiliko dira tresna bezala. Behin emaitzak izanda, ondorioak aterako dira gaur egungo egoeraz.

3.2. Metodologia.

José Luis Taberner (2009) esaten duen moduan, eskola da ideologia transmititzen duten instituzioetako bat, hortaz, helburu nagusia genero desberdintasunak eta estereotipoak gaur egun Haur Hezkuntzan errepikatzen diren behatzea denez, Practicum III-an Haur Hezkuntzako gela erreal batean oinarrituko da lana. Honetarako, 3 urteko 20 umeen jarrerak, rolak eta harremanak behatuko dira, baita eskolako irakasleen eta familien jarrerak eta gelako materialak.

Beraz, ikerketa enpiriko honen bitartez, genero rol eta estereotipo hauen presentzia behatuko dira haur hezkuntzako hiru urteko gela batean, hezkuntzak zenbaterainoko eragina duen genero desberdintasunen transmizioan ikusteko helburuarekin.

Aipatutako helburuak betetzeko aukeratutako metodologia mistoa da, hau da, kualitatiboa eta kuantifikatiboa. Tresna posible guztien artean, behaketa sistematikoa aukeratu da, gelako errealitatea ezagutzeko; eta inkesta, banakakoa eta oso grafikoa (ikasleen adinera egokitua).



Behaketa sistematikoa ingurune jakin batean ematen diren jarrerak eta portaerak behatzean datza, jarrera eta portaera horiei azalpena bilatzeko helburuarekin. (Nalbisua, 2012, 2. diapositiba). Behaketa sistematiko honetan, alde batetik irakasleen jarrera, transmititzen dituzten baloreak, gatazken kudeaketa eta generoaren gaiaren lanketa behatutakoa jasoko dira. Bestetik, ikasleen harteko harremanak, rolak eta arropa behatuko dira. Materiala ere kontuan hartuko da, hau da, etxetik ekarritako jostailuak, gelako objektuekin zein nolako

harremanak dituzten, gelako ipuinak, filmak eta abestiak. Familietan ematen diren genero desberdintasunak ere jasoko dira behaketa sistematikoaren bidez, hala nola, familia eredu motak, nor joaten den haurraren bila edo bileretara eta etxekolanen banaketa.

Galdetegia ikerketa metodo bat da, datu zehatzak lortzeko helburuarekin erabiltzen dena. Galdetegia egiteko, fitxa batzuk prestatu dira eta fitxa bakoitzean alderdi batekin loturiko irudiak agertzen dira (jostailuak, arropa, etxekolanak, kirolak, lanbideak...) Gelako puntu batean kokatuta umeak deitu dira banaka galdetegia egiteko, eta orduan, umeak irudi bakoitza “neska” edo “mutila” generoekin lotu beharko ditu.

4. Marko teorikoa

Atal honetan marko teorikoaren garapena egingo da, horretarako hainbat autoreen ikuspegia kontuan hartuko da lanaren gaiarekin lotutako kontzeptuei buruz.

4.1 Sexua eta generoa

Lehenik eta behin, egokia dirudi sexua eta generoa kontzeptuak desberdintzen hastea:

Jose Luis Taberner, (2009) definizioan oinarrituta, *sexu* hitzari gizonaren eta emakumearen arteko desberdintasun naturalen taldeari deritzo, hau da, biologikoki emetzat edo artzat hartzea. Alegia, esan genezake sexua gizonezkoen eta emakumezkoen anatomiaren, funtzio biologikoen eta hormonon aldeko desberdintasunek betetzen dutela. Azken kromosoma parearen egituraren emaitza sexua da, emakumeek XX pareta eta gizonek berriz XY.

Generoa ez da emakumea eta gizona desberdintzen dituzten ezaugarri biologikoen eta anatomikoen taldea, baizik eta alde biologiko horietan funtsatuta sortu diren gizarte-erakuntzak. Hori dela eta, generoa ez da kromosomen ondorioa, gizonek eta emakumeek bizi diren gizartearen ondorioa baizik, alegia, bakoitzak bere sexuaren arabera gizarte-bereizketak egiten dituen gizarte batean bizitzeak kausatutako aldeak (Taberner, 2009).

4.2 Sozializazio agenteak eta genero-eragileak

Emakumei eta gizonei esleitutako portaera-ereduak transmititzeko prozesuak hain dira konplexuak eta sotilak, askotan, ez garaia haietaz jabetzen. Familian hasten dira, eskolan osatzen dira eta komunikabideek sendotzen dituzte (Moreno, 2000).

José Luis Taberner (2009) bere hitzetan, “*sozializazio-agente deritze gizabanakoak bizimodu kolektiboetan txertatzeko sortutako taldeei edo beste gizarte-bitarteko batzuei; bizimodu kolektibo hori gizarte oso batena izan daiteke, edo osotasun horren zati batena*”

(Taberner, 2009.). Hau da, sozializazio agenteak gizartean dauden taldeak dira, non bizimodu ereduak transmititzen dira.

4.2.1 Eskola

Eskola gizartearen mikrokosmos bat da. Bere funtzioa bertan nagusi diren balioak eta ideologiak transmititzea da, eta hori lortzeko antolatuta dago. Balio eta ideologia horiek klase ertaineko gizonezko zurienak dira (Askew y Ross, 1991, apud Moreno, 2000). Gizarte kapitalistan, eskola funtsezko faktorea da kultura-ereduak transmititzeko. Sexismoa da gure gizartea definitzen duen gakoetako bat. Eskola transmisio-agente gisa definitzen bada, bere egituran eta funtzionamenduan gako patriarkal hori izango du (Santos, 2000).

Eskolak ere, gizarte eta hezkuntza erakunde den aldetik, eginkizun garrantzitsua du emakumeek eta gizonek bereganatzen dituzten portaera eredu horiek eratzeko prozesuan. Izan ere, nesken eta mutilen eskolatze bateratua sexuagatiko desberdintasunak zuzentzen dituen arren, edukiak (esplicituak eta ezkutukoak) transmititzen dira, eta, eredu maskulino hegemoniko batetik, sexuen berdintasuna lortu nahi da (Moreno, 2000). Hezkuntzaren helburuetako bat, gainera, pertsonak gizartera egokitzea da (Salas, 1997).

"Guztien eskola", lehenik eta behin, gizonen eskola izan da (Anna María Piussi, 1997, apud Moreno 2000). Beraz, beharrezkoa da eskolak kontzientzia hartzea sexu identitatearen eraketan eta bi generoen balioespen sozialean duen zeregin garrantzitsuaz, hezkuntzaren bidez balio batzuk transmititzen eta garatzen baitira (Sau, 1989, apud Moreno 2000).

Eskola mistoa orokortuta egonda, emakumeen hezkuntzan aurrerapenak lortu dira eta hezkidetzak justifikatzen zuen helburua lortu da. Hala ere, egiaztatu ahal izan denez, emakumeek ez dute oraindik berdintasun sozialik lortu, bai hautatzen dituzten lanbideengatik eta ikasketengatik, bai haietatik lortzen duten errendimendu ekonomikoagatik eta estatusagatik. Hau da, berdintasun formal horrek ez du berdintasun errealekin bat egiten (Subirats, 1994). Berdintasun formal horren atzean, ikasleek osatzen dituzten bi taldeen artean, hierarkia eta desberdintasuna izaten dira nagusi (Salas, 1997). Gizarte-harremanetan oraindik ere ematen direlako "normaltzat" jotzen diren eta onartuta dauden bereizkeria-modu asko (Subirats, 1994).

Eskola sozializazio-agente esplizitua eta pertsonalizatua (irakaslearengan pertsonalizatua, kasu honetan). Haurrak garenetik taldean hezten gara eta jarraibide komun batzuk jarraitzeko irakasten gaituzte. Ohiko akatsa da familiek sozializazioaren zama guztia eskolaren gainean ipintzea. Eskolak ezin du sozializazio hutsune hori bete, gainera, familian ematen den lehenengo sozializazio hori oso garrantzitsua da. Familiek eskaintzen dute lotura afektibo oso estua, eskolak bakarrik ezin duena bete (Taberner, 2009).

Eskolak modu desberdinetan jarduten du eta eragina du ikasleengan. Horietako bat, curriculum esplizituan ezarrita dago, helburu batzuk lortzeko asmoz garatu nahi diren jarduera, eduki eta helburuen multzoan. Beste modu bat ezkutuko curriculum da, hau da, esplizitu ez den eragin-multzoa, agerikoa ez dena eta nahita egin ez dena (Santos, 2000).

4.2.2 Familia

Emilia Morenok (2000) esaten duen moduan, familian generoarekiko lehenengo ereduak eta baloreak finkatzen dira; nahiz eta gaur egun emakumeen papera aldatu, familiek jarraitzen dute emakumeen arlo pribatuko papera eta gizonen arlo publikoaren papera transmititzen.

Hezkuntzako lehenengoetako pausua izan beharko litzateke familiak heztea hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, familiak eragin zuzena eta etengabekoa daukalako (bizitza osoan zehar) eta bere eragina, beraz, oso iraunkorra da. Bestetik, berdintasunaren alde egindako pausu guztiak lagungarriak direlako, baina, familiatik kanpo geratzen dira; hau da, bizitza pribatuaren kanpo, eta hori ezin da aldatu. Azkenik, etxeko lanen banaketak errazten duelako pertsonen arteko harreman demokratikoagoa, bakoitzaren aukerak eta gaitasunak sustatzen (Moreno, 2000).

Oso garrantzitsua da familiako bikote heterosexualetan berdintasunean oinarritutako harremana izatea, honela, umeentzako erreferentzia izango dira. Adibide moduan, etxerakolanen banaketa.

José Luis Taberner, (2009) etxeko lanen banaketa ere aipatzen du bere lanean, etxeko lanak bidezko modu batean banatzean, haurren sozializazio egokia emango da. Gaur egun emakumeak lan-merkatuan sartuta daudenez, etxeko lanak bikotekidearekin banatzeko beharra ematen da. Seme-alabek errealitate hori ikusteak onura oso garrantzitsuak ekarriko ditu beraien sozializaziorako.

5.2.3 Komunikabideak

Sozializazio-agentek ez daude beti pertsonalizatuta (familia, lagun taldea, eskola...) Sozializazioa modu anonimoan eta zeharkakoan eman ahal da ere; adibide bezala telebista, filmak, ipuinak, publizitatea eta abar aipatu ahal dezakegu (Taberner, 2009). Nahiz eta lan honetan eskolako esparruan zentratu, ezin dugu ahaztu komunikabideen paper garrantzitsua genero desberdintasunak transmititzerako orduan. Gizarteko egoera erreala islatzeaz aparte, zeharkako modu batean ere errealitate hori konfiguratzeko dute (Moreno, 2000).

José Luis Taberner (2009) esaten duen moduan, telebistak paper garrantzitsua dauka ideologiak eta baloreak ezagutzera emateko eta zabaltzeko. Telebistaren helburua masari eragitea da mezu bat transmititzea, adibidez, kontsumitzeko gogoia, edo publizitatearen medioz errealitate ideal bat sortzea pertsonen burmuinetan. García Vicentek (1995) (apud Moreno, 2000) emakumeak telebistan duen irudiari buruzko azterketa egin zuen eta honetan ikusten zen transmititutako paperak erregresiboak zirela gaurko emakumeen errealitatearekin konparatuz. Telebista-programetan emakumeen papera definitzean emakumeen irudi bat mantentzeko funtzio ideologikoa duela ikusi zen, etxeko ekoizpen eta ugalketaren eremuari lotua.

Hala ere, komunikabideak ere gizarte-aldaketarako tresna garrantzitsua izan daitezke, eta, beraz, mezuen edukia aldatzeaz gain, egungo errealitatearekin bat datorren emakumeen irudi publikoa sustatzen lagun dezakete; adibidez, "iritzia sortzen" duten programetan presentzia eta parte-hartzea handituz (Fagoaga, 1993, apud Moreno 2000).

4.3 Curriculum esplizitua eta curriculum eskutua

Eduki curricularretan ez dira emakumeen ekarpenak kontuan hartzen, ez dira legitimoztat hartzen beraien jakintzak eskolan ikasteko eta transmititzeko. Nahiz eta neskek eskolan pairatutako diskriminazioak eraginik ez izan errendimendu akademikoan, tratu desberdin hori eragin handia izaten du etorkizunean. Neskek beraien izaeraren eraikuntzan, nahiz eta ikasle bikainak izan, eremu publikoarekin zerikusia duten paperak ez dituzte hartzen (STEILAS, 2015).

4.3.1 Curriculum esplizitua.

Curriculum esplizitua "eskolak asmo eta plan nabarmen eta publiko batzuen bidez eskaintzen duen guztiaz egina dago". Orduan curriculum esplizitua, kontu handiz prestatutako hezkuntza-eskaintza da, eta hezkuntza-helburu, ikasketa-plan, programa, testu eta gida didaktikoetan zehazten da (Eisner, 2002).

Eskolako materialek sexuen irudi oso estereotipatua eskaintzen dute. Emakumeak batez ere etxeke giroetan irudikatzen dira; gizonak, berriz, gainerako eremuetan nagusitzen dira, eta gutxitan izaten dute zaintzaileen rola. (Best, 1993; Subirats, 1993, apud Palomares, 1994).

STEILAS (2015) egindako monografikoan azaltzen den bezala, programazio curricularrean sexismoa etengabe proiektatzen da, testu liburuetan emakumearen irudia kanpo geratzen da edo emakume baten presentzia dagoenean eredu maskulinoetara dago atxikituta. Hau da, nabarmentzen den emakumearen eredu gizonaren ezaugarriengandik hurbil dagoena da. Gainera, ipuinetan edo bestelako material didaktikoetan pertsonaiak estereotipoei lotuta daude. Adibide bezala, pertsonaia femeninoek menpekoak eta maitagarriak dira; pertsonaia maskulinoak, berriz, independenteak, azkarrak, indartsuak eta ausartak dira. Material curricularretan historian zehar emakumeek egindako ekarpenak baztertu dira. Honen ondorioz, ikasleek ez dute batere informaziorik jasotzen emakumeen lorpenen inguruan, eta neska gazteek ez dute erreferenterik izango, beraien pertsonalitatean eragin handiak ekarriko duena eta batez ere, autoestimuan.

EAEn curriculum ofiziala Eusko Jaurlaritzak zehazten du. Curriculumean hurrek etapa honetan lortu beharreko oinarrizko konpetentziak, zeharkakoak eta espezifikoak agertzen dira. Dekretuan etapako helburuak, eduki komunak eta zikloaren arabeko edukiak biltzen ditu. Bukatzeko, ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak zehazten dira. (237/2015 Dekretua, Eusko Jaurlaritza)

5.3.2 Curriculum ezkutua.

Acevedo Huertaren (2010) definizioaren arabera, ezkutuko curriculumara arau-multzo gisa da, egituran eta sinboloan agertzen diren ohiturak, sinesmenak, hizkuntzak eta ikurrak erakunde baten funtzionamendua. Kasu honetan, eskola da. Inkontzienteki transmititzen eta jasotzen dena da.

Curriculum ezkutua modu inplizituan funtzionatzen du, eduki kulturalen, errutinen, elkarreraginen eta eskolako lanen bidez. Ez da irakasleen kolektiboaren “konspirazio-plangintzaren” ondorio. Baina nabarmendu beharrekoa da, normalean, gure gizartearen dimentsio eta berezitasun nagusien erreproduktzioa izaten dela (Torres, 1991, apud Moreno, 2000).

Generoen arteko desberdintasunak forma askotan sortzen dira eta hala forma gehiagotan transmititzen dira. Nahiz eta sexismoa curriculum esplizituan ere presente egon, ikusezina den diskriminazioa da, egunerokotasunean ematen dena. Irakasleek ikasleengan dituzten itxaropenak, ikasleekin dituzten harremanak eta abar errepikatzen dituzte estereotipo eta rol maskulinoak eta femeninoak. Egunerokotasunean ematen den diskriminazioa denenez eta hain barneraturik daukagunez, ikasle zein irakasleek modu inkontziente batean errepikatzen dituzte jarrera sexistak. Gainera, sexismoak ez du talde sexual batengan eragina, baizik eta ikasleria osoari dagokio (STEILAS, 2015).

“Eskolak ez ditu norbanakoak hartzen orri zuriak balira bezala, baizik eta genero maskulinoan edo femeninoan sozializatutako neska eta mutilak jasotzen ditu. Eskolak egiten duena da, estereotipo maskulino eta femeninoak indartu, mantendu eta errepikatu” (STEILAS, 2015).

Sozializazio femeninoaren ondorioz, ikasketak eta lana aukeratzeko orduan, gizartean gutxiago baloratuta dauden aukerak egitera eragiten die neskeei. Mutilei, bere aldetik, sexismoak ere eragiten die, maskulinitateari gehiegizko garrantzia ematen, adibidez. Sozializazio maskulinoaren ondorioz, maskulinitatean oinarritutako baloreak barneratzen dituzte mutilek; adibidez, independentzia, sentimenduak ez adieraztea, arrakasta profesionala etab. Tradizionalki femeninoak diren ezaugarriak ukatzera eramaten dituzte (STEILAS, 2015).

4.4 Genero rolak eta estereotipoak

Eskolak, sozializatzailerak eta balio-transmisore indartsu gisa, estereotipoen transmisioan dagokion eginkizuna bere gain hartu behar du (Sadker y Saker, 1982, apud Moreno, 2000).

Gaur egun, nahiz eta gainditu egin den “bi curriculum, sexuen arabera banatuak” hezkuntza-eredua, joera sexistak ugariak dira eta eskolak era askotan transmititzen dituzte oraindik, eta horien artean Sadker eta Sadker (1982) sei hauek nabarmentzen dituzte: hizkuntza-alborapena, estereotipoak, ikusezintasuna, desoreka, irrealtasuna eta zatiketa (apud Moreno, 2000).

4.4.1 Hizkuntza-alborapena.

Sexismoa ez da bakarrik hizkuntzan, baina, egia da gure hezkuntza-sistema horretan oinarritzen dela, bai ahozko eta bai idatzizko hizkuntza, horregatik ezin da ahaztu transmisioan garrantzi berezia duela. (Abranches y Carvalho, 1999, apud Moreno, 2000).

“Hizkuntza eta gauzak izendatzea boterea den mundu honetan, isiltasuna zapalkuntza eta indarkeria da” (Arianne Rich, 1983, apud Moreno, 2000, 86. p). Horregatik, oso garrantzitsua da hizkuntzari ematen zaion balorea; hau da, bai era sexista batean ez hitz egitea eta bai egoera bidegabeen aurrean hitza altzatzea.

Sexismoa hizkuntzan esan nahi du gehiago balioesten direla, are gehiago, tinbre lodi batekin egindako baieztapenak eta gizonen lotutako adierazpenak edo komunikatzeko moduak. Gure herrialdean ere badira zenbait lan agerian uzten dutenak irakasleek gehiago hitz egiten dietela mutilen neskei baino. (Subirats, 1985 apud Moreno, 2000) eta nola eskaintzen dieten denbora gehiago mutilekiko elkarreaginei ikasgelan. (Freixas eta Luque, 1998, apud Moreno, 2000). Halaber, mutilen porrota esfortzu faltari egozten zaio, eta neskena, berriz, trebetasun ezari. Honela, mutilak ohitu egiten dira nabaritzera eta neskek baino gehiago hitz egiten dute ikasgelan (Moreno, 2000).

4.4.2 Estereotipoak.

Genero-estereotipoak aurrez pentsatutako ideia-multzoak dira eta gizonen eta emakumeen portaera azaltzeko erabiltzen dira, baldintzatzen du gizonen eta emakumeen portaera, eta lanean eta espazio publikoetan hartu beharreko papera (Herrero Gálvez, 2020).

Mendebaldeko kulturaren, gizonen etxetik kanpo izaten dute lana, eta oso litekeena da emakumearentzat erreserbatuta egotea etxearen eta seme-alaben erantzukizunak. Tradizioz gizonen esleitu izan zaizkien rola (lanerako orientazioa, energia, arrazionaltasuna), eta azkenean estereotipo maskulinoaren berezkoak izan direnak, beren lan profesionalak egiteko eskatzen diren ezaugarrien ondorio dira. Berriz, tradizioz emakumeari dagozkion ezaugarriak (sentikortasuna, berotasuna, leuntasuna), berriz, etxeandarearen lana egiteko behar direnak dira (Gonzalez Gavaldón, 1999). Gizonen eta emakumeen esleitutako genero estereotipoak eta rola kulturaren arabera desberdinak dira, beraz, genero bakoitzari esleitutako gaitasunak aldatu egiten dira gizarte batetik bestera, garai batetik bestera eta ez ditu biologiak ezartzen, baizik eta soziala da (Subirats, 1999).

Testuliburuaren edukiak eta bestelako material didaktikoak hautatuz, estereotipo maskulino eta femeninoak transmititzen dira. Horietan, irudiek eta hitzek mutilak indartsuenak, burutsuenak, independenteak eta bitxiak direla jotzen dute. Neskak, aldiz, mendekotasun handiagoa dute eta afektatuagoak dira (Moreno, 2000).

Estereotipoen transmisio hori, testuliburu bidez ez ezik, txikitatik ipuinak kultura transmititzeko bitarteko gisa ere erabiltzen dira (Colomer, 1994; Turín, 1995, apud Moreno, 2000). Adibide bezala, Errauskine edo Edurne Zuri ipuinetan emakumeen irudi estereotipatu agertzen da, emakumearen papera amatasunarekin, etxeko lanekin eta ezkontzarekin lotutako papera hartzen dutelako.

Bai emakumeek bai gizonek jokatzen dute beren rolak, eta, azkenean, guztiok ahaztu ditugu rol horiek betetzearen benetako zergatia. Ondorio honetara iritsi da Gonzalez Gavaldón (1999): Hain barneraturik ditugu genero estereotipoak azkenean pentsatzen dugula benetan gizonek, naturalki, lanera bideratuta daudela, eta emakumeak pertsonen arteko harremanetara bideratuta daudela, portaera horiek inertziak eta tradizio estereotipatu baten ondorioz dituztela ulertu beharrean.

1. Taula: Gizartean existitzen eta transmititzen diren genero estereotipoak.

ESTEREOTIPOA	MASKULINOA	FEMENINOA
Gaitasunak:	Inteligentzia Indarra Independentzia	Afektibitatea Sentiberatasuna Erantzukizuna
Balioak:	Agresibitatea Anbizioa Boterea	Ulerkotasuna Ahultasuna
Portaera-ereduak:	Estereotipo maskulinoa indartzeko (Adibidez, negarrik ez egitea)	Estereotipo femeninoa indartzeko (Adibidez, ez zikintzea)
Kolore bat:	Urdina	Arrosa
Espazio bat munduan:	Esparru publikoa	Esparru pribatua
Eredu sexual bat:	Heterosexuala (rol "aktiboa")	Heterosexuala (rol "pasiboa")
Sexu bat:	Gizonezkoa	Emakumezkoa
Funtzio biologiko bat:		Amatasuna

Iturria: Egileak egindakoa Datuak: (Salas, 1997:34)

4.4.3 Ikusezintasuna

Historiak ez ditu aintzat hartzen emakumeek gizateriaren garapenari egindako ekarpenak. Oso jende gutxi daki emakume batek iradoki ziola Alfred Nobeli bere saria sortzea, eta emakume askok irabazi zutela historian zehar (Selma Lagerlof, Madre Teresa de Calcuta, Rigoberta Menchú...), edo Mileva Maric izan zela, Albert Einsteinen lehen emazteak, lan asko egin zituena fisikaren arloan eta gero bere senarrak irabazi zuela Nobel Saria. Literaturan eta artean ere emakumeak ikusezin bihurtu dira, askotan goituzen bat edo senarraren izena erabili zutelako (Moreno, 2000).

4.4.4 Desoreka

Gizonek egindako jardueren gehiegizko balorazioak ondorio nabarmenak ditu emakumeenganako balorazioan eta haiek egiten dituzten jardueretan, eta, ondorioz, emakumeen lanbideen balorazio txikiagoa egiten da. Emakumeak eskola-eraketan duen desoreka hori ikasgelan islatzen da, femeninoa ukatuz, eta, horrela, emakumeek berezko hartzen dituzten adierazpen edo ezaugarri guztiak, hala nola jakin-mina, ezabatzen eta ezeztatzen (Moreno, 2000).

4.4.5 Irrealtasuna.

Emakumeen lorpenei merezi duten garrantzia ez ematearen ondorioz, neskek eta mutilak gizonei, lanei, gaitasunei eta abarri buruzko informazio zehatza eta osagarria jasotzen dute, eta oso emakume gutxi, atzematen duten errealitatea faltsutuz (Moreno, 2000).

4.4.6 Zatiketa.

Gizartean oraindik ere oztopoak daude emakumeek eremu publikoa erabat bete dezaten. Haien presentzia, kasu askotan, bigarren mailakoa da, eta gizonek egindako jardueren osagarritzat hartzen da (Moreno, 2000).

4.5 Hezkidetza

Genero-desberdintasunak gizartean eraten dira. Eskola, familia eta komunikabideak agente sozializatzaile garrantzitsuak direla ikusi dugu. Agente horien eraginaren menpe, identitatearen ezaugarriak eta gizarteak genero bakoitzari egokitu dizkion ezaugarrien garapenak barneratzeko prozesua hedatzen da. Gizonezkoak egoera publikoetan nabarmenkeri handiagoa hartzeko hezita daude, gizarte-onarpen handiagoa izateko; Aipatzekoa da ere adierazpen emozional urriagoa dutela; adibidez, negarrik ez egitea (Taberner, 2009).

Hezkidetza da tratuan eta orientabide intelektual, profesional eta moralean genero-diskriminazio negatiboak ekidituz hezitzea; ikasleen etniari, gizarte-jatorriari edo erlijioari buruz gauza bera esan behar da. (Taberner, 2009). Duela urte batzuk, hezkidetza kontzeptua sortu zen, eta “hezkuntza mistoaren” ikuspegi tradizionala ordezkatzera du helburu. Ikuspegi hori, hain zuzen, ikasleak ikasgela berean antolatuz, irakaskuntza-mota bera ematera eta eskakizun eta ebaluazio berak betetzera mugatzen da. Hezkidetza, Ilich Silva-Peña Hezkuntza Zientzietako doktoreak adierazten duen bezala, hezkuntza-ekintza batean oinarritzen da. Hezkidetzak gizon eta emakumeentzako tratu- eta aukera-berdintasuna duten hezkuntza-espazioak sortzeko joera du, eta, horretarako, errespetuan, tolerantzian eta sexismo orotatik urruntzen dira (EDUCACIÓN 3.0, 2018).

Espainiako oraingo eskolan —batez ere zentro publikoetan—, galdu egin dira sexuari erlazionatutako alde formal guztiak. Esate baterako, irakasle batzuek tratu desberdina ematen diete bi sexuetako ikasleei, nahi gabe izanda ere, eta genero-bereizketa hori sustazen dute; edo izatez ikasgeletan gizonen protagonismo handiagoa hartzen dute, gehiago parte hartzen. (Taberner, 2009)

Emilia Morenok (2000) planteatzen duen lehenengo urratsa da agerian uztea hezkuntzan eredu sexistak transmititzen ari diren eta neskatilak sexuagatik diskriminatzen ari diren alderdiak. Zentzu horretan, eskolan sexismoa instituzionalizatzen ari diren prozesu eta mekanismoak, kontzienteak eta inkontzienteak, agerikoak eta subliminalak, detektatu behar dira, eta, ondoren, gai horiek jorratuko dituen eredu didaktikoa eta antolakuntza prestatu.

Curriculumari dagokionez Eusko Jaurlaritzak, 4/2005 Legeak 29. artikuluan jasotzen du curriculumaren diseinua:

- *“Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren arabeko aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera”.*
(<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-elkarbizitza-dokumentuak>)
- *“Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu”.*
(<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-elkarbizitza-dokumentuak>)
- *“Beharrezko ezagutzak sartzera, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten”.*
(<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-elkarbizitza-dokumentuak>)
- *“Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak”.*
(<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-elkarbizitza-dokumentuak>)
- *“Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatatzak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ere”.*
(<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-elkarbizitza-dokumentuak>)

5. Testuingurua

Atal honetan gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko egoerari argazkia egingo diogu. Horretarako, Eustat web gunetik ateratako datuak aztertuko ditugu. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta lehen hezkuntzako irakasleen ehunekoa aztertuko da sexuaren arabera. Bestetik, EAEko unibertsitatean Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Ingenieritza Mekanikoko graduan matrikulatutako ikasleen ehunekoari erreparatuko diogu sexuaren arabera. Bukatzeko, haur eta lehen hezkuntzan matrikulatutako haurren ehunekoa aztertuko dugu sexuaren arabera.

2. Taula: Euskal AEko irakasleak, sexu, maila, lurralde historiko eta titulartasunaren arabera. 2018/19. (%)

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza
Emakumeak	%91,86	%79,67
Gizonak	%8,14	%20,33

Iturria: Egileak egindakoa Datuak: EUSTAT, 2020

2. taulan ikusten den bezala, 2018/19 ikasturtean, Haur Hezkuntzako irakasleen artean, %91,86a emakumeak ziren eta bitartean %8,14a bakarrik gizonak ziren. Lehen Hezkuntzan, berriz, irakasleen %79,67a emakumeak eta %20,33a gizonak ziren; nahiz eta alde handia egon, ez da hainbestekoa Haur Hezkuntzan bezala.

Baina, zergatik dago kopuru desberdintasun hain nabaria? Historian zehar, zaintzaren lana emakumeekin lotuta egon da; eta gizonak, berriz, lan garrantzitsuak eta nagusitasun handiagoa izan dute. Horregatik, Haur Hezkuntza emakumeentzako lana bezala ikusi da betidanik, batez ere, Haur Hezkuntzak lotura handiagoa izan duelako zainketekin Lehen Hezkuntzak baino.

3. Taula: Euskal AEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak, graduko ikasketetan titulazioaren arabera, lurralde historikoari eta sexuari segituz. 2018/19. (%)

	Gizonak	Emakumeak
Haur Hezkuntza	%11,82	%88,18
Lehen Hezkuntza	%42,13	%57,87
Ingenieritza mekanikoa	%83,77	%16,23

Iturria: Egileak egindakoa Datuak: EUSTAT, 2020

Marko teorikoaren atalean ikusi dugun bezala, emakumeek joera dute sozialki gutxi baloratuta dauden lanbideak aukeratzeko. Gizonek, berriz, sozialki eta ekonomikoki oso baloratuak diren lanbideak aukeratzeko dituzte. 3. taulan ikusten den bezala, 2018/19 ikasturtean Haur Hezkuntzako graduko ikasleen artean %88,18a emakumeak eta %11,82a gizonak ziren Euskadin. Lehen Hezkuntzako graduan, berriro ere, aldea txikiagoa da ikasleen %57,87a emakumeak eta %42,13a gizonak izanda. Lehen esan bezala, Haur Hezkuntzako graduan gizon gutxiago matrikulatzen dira zaintzarekin zerikusi gehiago duelako Lehen Hezkuntzak baino. Ingenieritza mekanikoa, aldiz, gizonentzako gradu bezala ulertzen denez gizaratean, 2018/19 ikasturtean Euskadin Ingenieritza mekanikoan matrikulatutako ikasleen artean %83,77a gizonak ziren eta bitartean, %16,23a bakarrik emakumeak.

Nabaritzen da oraindik “emakumentzako” eta “gizonentzako” karrerak bereizten direla gaur egun. Ingenieritza mekanikoa gizonentzako gradutzat hartu da beti eta ikusgaia da zelako alde handia dagoen matrikulatuta dauden ikasleen sexuen artean.

4. Taula: Euskal AEn matrikulatutako ikasleak, titulartasun, maila, lurralde historiko eta sexuaren arabera. 2018/19. (%)

	Mutilak	Neskak
Haur Hezkuntza	%51,52	%48,48
Lehen Hezkuntza	%51,61	%48,39

Iturria: Egileak egindakoa Datuak: EUSTAT, 2020

4. Taula honetan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan 2018/19 ikarturtean ikasle matrikulatuen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan ikusi ahal da. Orokorrean, sexuen arteko alde txikia ikusten da eta nahiko orekatuta dago. Haur hezkuntzan ikasle matrikulatuen artean, %51,52a mutilak dira eta %48,46 neskek. Bitartean, lehen hezkuntzan ikasleen %51,61a mutilak dira eta %48,39a neskek.

6. Emaitzak

Behin gaur egungo Euskal Herriko egoera eta marko teorikoa ikusita, lan honen helburua lortzeko bideari ekingo diogu eta horretarako, Portugaleteko LaMennais Santa María eskolan izandako esperientzia hartuko dugu kontuan. Azterketa 3 urteko gela batean egin da eta 20 ume daude guztira: 13 mutil eta 7 neska.

Ikerketa hau egiteko behaketa sistematikoa eta banakako galdetegia eta erabiliko dira tresna bezala. Hauekin batera, haurrekin gaiarekin lotuta bat-bateko elkarrizketak ere kontuan hartuko dira.

Behaketa sistematikoari dagokionez, irakasleen papera behatzea ezinbestekoa da, batez ere, curriculum ezkutua kontuan hartu behar da, hau da, irakasleek inkontzienteki dituzten jarrerak, baloreen transmisioa eta gatazken kudeaketa. Horrekin batera ere generoaren gaia gelan lantzen den ala ez. Berdinen arteko harremanak oso garrantzitsuak dira. Behatuko dugu nolakoak diren haurren arteko harremanak, zein rola hartzen duten jolastean (batez ere, jolas sinbolikoan) eta zein nolako arropak eta mozorroak ekartzen dituzten. Jarriratzeko, materiala behatuko da; alde batetik, gelako materiala (erabiltzen dituzten ipuinak, abestiak, marrazki bizidunak, filmak...) Bestetik, haurrek gelako objektuekin duten harremana eta etxetik ekarritako jostailuak genero estereotipoekin bat egiten duten ikusiko dugu. Bukatzeko, familian ematen da lehenengo sozializazio garrantzitsu hori eta horregatik interesgarria da ikustea da zein motatako balioak transmititzen duten, zein familia ereduak existitzen diren gelan, etxeko lanen banaketa nolakoa den eta nor joaten den haurraren bila eta tutoretzetera.

Gelako errealitate behatu eta gero, datu kuantitatiboak izateko, galdetegia prestatu da. Galdetegia 9 ataletan dago banatuta eta atal bakoitzarekin zerikusia duten irudiak jarriko dira. Orduan, umeek lotu behar dute irudi bakoitza “neska” edo “mutila” generoekin:

- Jostailuak: soka-salto, dinosaurioak, panpinak, kotxeak eta sukaldetxoa.
- Adjektiboak: indartsua, maitagarria edo ausarta
- Koloreak: arrosa edo urdina
- Lanbideak: Mekanikaria, suhiltzailea, polizia, medikua, ileapaintzailea eta irakaslea.

- Mozorroak: Maitagarria, pirata, cowboy eta printzesa.
- Etxeko lanak: Sukaldatzea, harrikoa egin, lisatzea, konpontzea eta erosketak egitea.
- Kirolak: Futbola, balleta, saskibaloia eta tenisa.
- Arropa: Soinekoa, superheroien kamiseta, azazkalak margotzea eta makillajea.
- Pertsonaia: Printzea, txanogorritxu, otsoa, Edurne Zuri, spiderman eta hulk.

Beraz, atal honetan ikerketa egitean jasotako datuen berri emango da.

6.1 Behaketa sistematikoa

Atal honetan ikasgelan aztertutakoaren berri emango da eta lortutako datu kualitatiboak aztertuko dira. Horretarako, 2. eranskinean kontsultatu ahal den behaketa txantiloia erabili da.

Behaketa sistematiko honen bidez, lehenik eta behin irakasleek genero-desberdintasunen inguruan duten paper garrantzitsua behatu da; hau da, umeeikiko jarrera, transmititutako baloreak, gatazken kudeaketa, gaiuaren lanketa eta bestelako komentarioak. Ondoren, ikasleen arteko dinamikak aztertu dira eta gelan erabilitako materialak eta beraiekin duten harremanak. Bukatzeko, familien papera behatu da eskolarekin batera funtsezko papera betetzen duelako jarrera sexisten transmisioan.

6.1.1 Irakasleak

6.1.1.1 Jarrera

Hasteko, garrantzitsua da komentatzea Haur Hezkuntzako maisurik ez daudela eskola osoan, hau da, irakasle guztiak emakumeak ziren. Lehen ikusi dugun bezala, emakumeen ehunekoa Haur Hezkuntzan gizonezkoena baino altuagoa da zaintzarekin lotuta dagoen lanbidea delako. Lehen Hezkuntzan, berriz, maisuren bat zegoen.

Irakasleen jarrera dagokionez, gelako tutorearen, ingeleseko irakaslearen eta musikako irakaslearen jarrerak kontuan hartuko dira.

Gelako tutorearen jarrera neutroa izan da, gelako umeen erreferentea izanda oso garrantzitsua da jarrera neutroa izatea eta genero estereotipoak eta rolak ez errepikatzea. Are gehiago, umeen arteko egoera sexista edo matxista gertatzen zenean hori ukatzen zuen.

Behin, ume batek esan zuenean bere amak ez zuela lanik egiten eta etxean zegoela eta musikako irakasleak ez zuen ezer esan. Beste batek esan zuenean bere aitak ez zuela lanik egiten ez zuen sinesten eta umeak esandakoa ukatzen zuen. Nahiz eta komentario txikia izan, umei tarsmititutako mezua hurrengoa da: Gizonek lan egin behar dute eta emakumeek ez dute lan egin beharrik, etxekolanak egiteko.

Gaur egun haur transexualitateari buruz gero eta informazio gehiago daukagu, eta horregatik gaiari buruzko formazioa jasotzea oso garrantzitsua da. Gelan zakila duen ume batek esan zuen neska zela eta musikako irakasleak hori ukatu zuen. Agian haur transexuala izango da, edo agian ez, baina kontu handiz ibili behar gara horrelako gaiak ikutzerakoan.

Aurrerago ikusiko dugunez, mozerroen arteko banaketa sexista ematen zen gela, kasu berezi batzuetan zehar. Neska batek esan zuen inauterietan “Batman” bezala mozerrotuko zela. Ingeleseko irakasleak esan zion ezetz, “Batwoman” izan beharko zela, neska delako. Neskak, berriz, esan zion Batman dela, nahiz eta neska izan.

Laburbilduz, modu inkontzientean egiten diren komentarioak genero-desberdintasunen transmisioan pisu handia daukate eta gure jarrera haurrentzako modeloa izango dela kontuan hartu behar dugu.

6.1.1.2 Baloreak

Gelako tutoreak transmititzen dituen baloreak berdintasunean oinarrituta daude. Adibidez, patioan egonda egindako hurrengo komentarioa oso garrantzitsua da: “Mutil honek nagusitzerakoan maitagarria izango da bere neskalagunarekin...edo mutilagunarekin.” Haurrak txikiak direnetik heterosexualak izan behar direla onartzen dugu, eta funtsezkoa da gaur egungo irakasleek existitzen diren gainerako errealitateak kontuan hartzea.

6.1.1.3 Gatazken kudeaketa

Gelan genero desberdintasunei eta sexismoari buruzko gatazka asko eman dira. Gatazkek kudeatzeko eta konpontzeko elkarrizketa erabiltzen zen beti eta generoen arteko desorekak Adibide bezala, behin neska batek esan zuen inauterietan “Mickey Mouse” bezala mozorratuko zela eta mutil batek erantzun zion hori mutilentzako zela eta berak “Minnie Mouse” izan behar zela. Nire tutoreak esan zion guztia zela neskentzat eta mutilentzat.

6.1.1.4 Gaiaren lanketa

Gaiaren lanketa escasa egon da orokorrean, haur hezkuntzan ia ez dutelako gaia lantzen. Lehen hezkuntzan, DBHn eta batxillergoan gaia dexente lantzen dute. Adibidez, Martxoak 8 eta bakearen egunetan generoen arteko berdintasuna aipatzen da.

6.1.2 Ikasleak

6.1.2.1 Harremanak

Berdinen arteko harremani dagokienez, denek elkarrekin jolasten dute, baina ohikoa da ikustea neskak elkarrekin eta mutilak elkarrekin. Behin ume batek dinosaurioen kamiseta bat ekarri zuen, eta hasi ziren esaten zein dinosaurio zen ume bakoitzak. Orduan, neska batek esan zuen bera T-rexa zela. Ume batek esan zion dinosaurioak mutilentzat zirela, ezin zaiola guztatu kamiseta hori. Batez ere jostailuekin eta arroparekin egiten dituzte genero bereizketak, adibidez, mutil batek Marvel superheroien kamiseta bat ekarri zuen eta neska bati asko gustatu zitzaion eta kamiseta ikutu nahi zuen. Mutila ez zion utzi mutilentzat bakarrik zelako. Beste adibide bat, mutil batek aipatu zuen berak ez zituela azazkalak margotzen nesken gauza zelako. Neska batek erantzun zion hori ez zela egia bere nebak margotzen dituelako.

Koloreei ere genero zehatz bat esleitzen diete, mutil bat marrazki bat egiten zegoela, arrosa koloreko margoa hartu zuen. Orduan, neska batek esan zion ezin zaiola arrosa gustatu nesken kolorea zelako.

6.1.2.2 Rolak

Gelan, patioan eta psikomotrizitate gelan mutilek hartzen dute espazio handiagoa, batez ere jolas motan bereizketa handia dagoelako, hau da, mutilek jolas fisiko gehiago egiten dute, borroketan eta korrika aritzen direlako. Neskak, berriz, lasaiago jolasten dute eta jolas sinboliko gehiago egiten dute.

Gelan negar egiten ez zuen ume bat zegoen, bere gurasoek esaten zutelako negar egiteak nesken gauza zela. Horregatik, bere emozioak kudeatzeko kapaza ez zenez, indarkeriarekin solbatzen zituen gatazkak. Nahiz eta negar egiteko gogoak izan, ez zuen negarrik egiten. Adin honetan sentimenduen adierazpena ezinbestekoa da umeentzat eta horrelako komentarioak beraien garapen emozioen garapenean ondorio txarrak dakartza.

6.1.2.3 Arropa

Neskek eskolara ekarritako arropa estereotipoa jarraitzen zuen: arrosa, printzesak, soinekoak, gonak, kamisetetan edertasunarekin loturiko esaldiak... Mutilen arropa ere estereotipatua zen, hau da, Mickey Mouse, superheroiak, kolore ilunak..

Inauterietan gelara ekarritako mozorroetan ere genero desberdintasunak eta rolak ikasi ahal dira: Mutil gehienek superheroien mozorroak ekarri zituzten (Spiderman, Thor...) besteek, piratak edo suhiltzaileak bezala etorri ziren jantzita. Neskek, printzesa edo maitagarri bezala etorri ziren, baina bi neskek superheorien mozorroak ekarri zituzten, estereotipoa apurtuz.

6.1.3 Materialak

6.1.3.1 Etxetik ekarritako jostailuak

Normalean umeez ez zuten etxetik jostailurik ekartzen, baina batzuetan zeozer ekartzen zuten eta oso adierazgarria zen. Mutilek dinosaurioak, kotxeak, armak eta superheroiak ekartzen zituzten gelara. Neskak, berriz, panpinak eta pelutxeak ekartzen zuten.

6.1.3.2 Gelako objektuekin harremana

Orokorrean gelako objektuekiko harreman antzekoa izan da. Egia da mutilek kolpe gehiago ematen zituztela eta materiala maizago botatzen zutela neskek baino, hau da, neskek materiala gehiago zaintzen zuten.

Guztiak jolasten zuten material guztiarekin, baina, batzuetan banaketa hori gertatzen zen eta mutilek kotxeekin eta dinosaurioekin jolasten zuten eta neskak, berriz, margotzen edo panpinekin jolasten egoten ziren.

6.1.3.3 Ipuinak

Astean ipuin bakarra kontatzen zuten gelan eta ipuin klasikoak izaten ziren (txanogorritxu, hiru txerrikumeak...) Protagonista maskulinoa agertzen zen gehienetan eta pertsonai femeninoa protagonista izatekotan, izaera maitekorra eta pasiboa azaltzen zuten.

6.1.3.4 Filmak/Marrazki bizidunak

Gaur egun etxean ikusten dituzten marrazki bizidunak jartzen ziren gelan, gehien jartzen zirenak "Little Einsteins" izenekoak ziren. Marrazki bizidun hauetan protagonista neska-mutilen talde bat da, abenturak bizitzen duena artearekin eta musikarekin loturiko jakintzak berenganatzeko. Bi neska eta bi mutil osatzen dute taldea eta neskek, rol aktiboa daukate eta beraien inteligentziari garrantzia handia ematen zitzaien eta umeentzako eredu egokia da arrazoi horrengatik.

6.1.3.5 Abestiak

Abestiei dagokienez, haur hezkuntzako abesti tipikoak jarzen ziren.

6.1.4 Familiak

6.1.4.1 Familiak ereduak

Familia erduei dagokionez, bikote heterosexualak eta familia gurasobakar bat aurkitzen dugu. Aipatzeko interesgarria da ikasleek familiei buruz aipatutako datu batzuk, adibidez, behin gelako mutil batek esan zuen bere gurasoek ez diotela azazkalak margotzen uzten. Beste mutil batek komentatu zuen bere aitak esaten zuela negar egiteak nesken gauza zela. Haurrek aipatutako komentario hauen bidez, ikusi ahal da nola familiak genero-desberdintasunak transmititzen dituzten.

6.1.4.2 Nor joaten da haurren bila

Amak joaten dira gehiago, baina oso berdinduta dago. Inplikazio berdina daukate bai amek eta bai aitek.

6.1.4.3 Nor joaten da tutoretzetara

Tutoretzetara amak joaten dira gehiago, familietan lan egiten ez duten ama gehiago daude aitak baino, eta denbora gehiago daukate tutoretzetara joateko.

6.1.4.4 Etxekolanen banaketa

Bat-bateko elkarrizketen bidez, ikusgaia da gaur egun etxeko lanen banaketa bidezko modu batean egiten dela. Erosketak egitea, harrikoa egitea, janaria prestatzea... ama eta aitaren artean banatzen zuten edo elkarrekin egiten zituzten etxeko lanak.

6.2 Galdetegia

Galdetegiaren helburu nagusia gelako genero desberdintasunekin loturiko datu kuantifikatiboak lortzea da. Horretarako fitxa grafiko batzuk prestatu dira umeen adinera egokituta eta hainbat dimentsio kontuan hartuz: Jostailuak, lanbideak, mozorroak, etxeko lanen ardura, kirolak, arropa eta apaingarriak, zein adjektiborekin eta pertsoniarekin sentitzen diren identifikatuta eta zein kolore duten gustuko.

5. Taula: Jostailuen artean, zeintzuekin jolastu ahal dute neskek eta zeintzuekin mutilak?

JOSTAILUAK	MUTILEN ERANTZUNAK		NESKEN ERANTZUNAK	
	Mutilentzat	Neskentzat	Mutilentzat	Neskentzat
Soka-salto	7	6	2	5
Dinosaurioak	11	2	3	4
Panpinak	5	8	1	6
Kotxeak	13	0	6	1
Sukaldetxoa	5	8	3	4

Iturria: Egileak egindakoa.

5. Taula honetan ikusi ahal dugu orokorrean, generoaren arabera banaketa ematen da jostailuekin. Mutil gehienak diote dinosaurioak mutilentzat direla; baina, neska gehienak, berriz, neskeekin lotu dituzte beraiek dinosaurioekin jolasten dutelako. Panpinekin, ia guztiak ados egon dira neskeekin erlazionatzean. Kotxeekin argi ikusten da bi sexuek mutilekin lotzen dituztela eta sukaldetxoa neskeekin. Esan dezakegu jostailuei dagokienez, erantzun estereotipatuak jaso direla.

6. Taula: Lanbide hauen artean zeintzuk dira emakumeentzat eta zeintzuk gizonentzat?

LANBIDEAK	MUTILEN ERANTZUNAK		NESKEN ERANTZUNAK	
	Mutilentzat	Neskentzat	Mutilentzat	Neskentzat
Mekankaria	13	0	5	2
Suhiltzailea	10	3	2	5
Polizia	12	1	7	0
Medikua	7	6	3	4
Ileapaintzailea	7	6	5	2
Irakaslea	4	9	1	6

Iturria: Egileak egindakoa.

6. Taulan umeei lanbide desberdinei buruz galdetu zitzairen eta ikusi ahal da mutilek genero estereotipoetan oinarritutako erantzun gehiago izan dituztela neskek baino. Adibidez, 10 mutilek esaten dute suhiltzaileak mutilentzako lanbidea dela, neska gehienak berriz, neskeentzat dela diote.

7. Taula: Mozorro hauen artean zein jantzi ahal dezakete neskek eta zein mutilek?

MOZORROAK	MUTILEN ERANTZUNAK		NESKEN ERANTZUNAK	
	Mutilentzat	Neskentzat	Mutilentzat	Neskentzat
Maitagarria	1	12	0	7
Pirata	9	4	6	1
Cowboy	10	3	5	2
Printzesa	0	13	0	7

Iturria: Egileak egindakoa.

7. Taulan ikusi ahal dezakegu nola bai neskek eta bai mutilek mozorroak antolatzen dituzten genero estereotipoen arabera. “Neskentzako” bezala hartzen dituzte maitagarria eta

printzesa mozorroak, eta bitartean, “mutilentzako” hartzen dituzte cowboy eta pirata mozorroak.

8. Taula: Etxekolan hauen artean zeintzuk egin ahal dituzte emakumeek eta zeintzuk gizonek?

ETXEKO LANAK	MUTILEN ERANTZUNAK		NESKEN ERANTZUNAK	
	Mutilentzat	Neskentzat	Mutilentzat	Neskentzat
Sukaldatzea	7	6	4	3
Lisatu	3	10	2	5
Harrikoa egin	8	5	2	5
Konpontzea	12	1	6	1
Erosketak egin	9	4	3	4

Iturria: Egileak egindakoa.

8. Taula honetan ikusi ahal da nola orokorrean, parekatuagoa dago. Umeekin elkarrizketa izan eta gero, ondorioztatu dezakegu etxekolanen banaketa gero eta modu orekatuagoagoan egiten den. Beraien etxeetan bai amak eta bai aitak egiten dituzte etxeoko gauzak.

9. Taula: Kirol hauen artean zeintzuetan parte hartu ahal dute neskek eta zeintzuetan mutilek?

KIROLAK	MUTILEN ERANTZUNAK		NESKEN ERANTZUNAK	
	Mutilentzat	Neskentzat	Mutilentzat	Neskentzat
Futbola	12	1	5	2
Ballet	1	12	0	7
Saskibaloia	11	2	5	2
Tenisa	11	2	6	1

Iturria: Egileak egindakoa.

Kirolei dagokienez, 9. taulan mutilekin eta neskekin lotzen dituzten jardueren arteko alde handia dago. Futbola, tenisa eta saskibaloia mutilentzako kiroltzat hartzen dituzten bitartean, ballet-a neskentzako dela uste dute. Ondorioz, esan dezakegu generoaren estereotipoa kirolen esparruan ere berresten dela.

10.Taula: Arropa eta apaingarri hauen artean zeintzuk erabili ahal dituzte neskek eta zeintzuk mutilek?


ARROPA	MUTILEN ERANTZUNAK		NESKEN ERANTZUNAK	
	Mutilentzat	Neskentzat	Mutilentzat	Neskentzat
Soinekoa	0	13	0	7
Azazkalak margotzea	1	12	0	7
Makillajea	2	11	0	7
Superheroien kamiseta	11	2	5	2

Iturria: Egileak egindakoa.

Arropa eta apaingarrien kasuan, 10. taula honetan, genero estereotipoak eta rola barneraturik dituztela ikusi ahal da berriro. Mutilen eta nesken erantzunetan ikusi ahal dezakegu soinekoa genero femeninoarekin lotzen dutela guztiek.

Neskek ere azazkalak margotzea eta makillajea neskentzako soilik diren apaingarriak bezala hartzen dituzte, bitartean, bi mutilek makillajea mutilentzako dela esan dute eta mutil bakarra azazkalak margotzea mutilentzako apaingarri bezala ikusten du berak hori egiten duelako.


1. Grafikoa: Adjektibo hauen artean zu zara...



Iturria: Egileak egindakoa.

Ikusten den bezala, 1. grafiko honetan mutilen artean, 5 indartsu bezala ikusten zuten beraien burua, 4 maitagarriak eta beste 4 ausartak. Nesken artean, 3 maitagarriak zirela erantzun zuten, beste 3 indartsuak eta 1 ausarta. Beraz, estereotipoa konfirmatzen da.


2. Grafikoa: Bi kolore hauen artean zein gustoko duzu gehiago?



Iturria: Egileak egindakoa.

Koloreen kasuan, alde handia egon da erantzunen artean. 2. grafikoan ikusten den bezala, mutil guztiek aukeratu zuten kolore urdina, nesken artean 5 arrosa kolorea aukeratu zuten eta 2 urdina.

3. Grafikoa: Hurrengo pertsonaien artean, zeinekin sentitzen zara identifikatuta?



Iturria: Egileak egindakoa.

3. Grafikoan ikusi ahal da ume bakoitzak aukeratutako pertsonaia. Ikusten ari garen moduan, berriro ere erantzun oso estereotipatuak jaso dira: Mutilen artean inor ez zuen txanogorritxu aukeratu eta nesken artean, 3. Mutil batek eta neska batek aukeratu zuten otsoa. Mutilen artean, berriro ere, inor ez zuen printzesaren pertsonaia aukeratu, baina nesken artean 2. Spiderman pertsonaiari dagokionez, 5 mutil aukeratu zuten eta neskarik ez. Bukatzeko, 7 mutil aukeratu zuten Hulk eta neska bakarra.

7. Ondorioak

Lan honen bitartez genero desberdintasunak eta estereotipoak aztertu dira Haur Hezkuntzako 3 urteko gela batean. Lehenik eta behin esan beharra dago gizartean aurki ditzakegun genero-estereotipoak eskolan existitzen direla eta transmititzen egiten direla. Horretarako, genero desberdintasunak nola transmititzen diren aztertu da, baita eskolaren papera eta familien barruko dinamikak. Ikerketa egiteko bi tresna erabili dira: behaketa sistematikoa eta galdetegia. Behaketa sistematikoa lagungarria izan da datu kualitatiboak lortzeko eta behaketa orokorra egiteko. Galdetegiaren bidez datu kuantifikatiboak lortu dira, galdera zehatzak eginez informazio jakin bat lortzeko.

Lan hau egiteko erabilitako bibliografia aztertu eta gai horretan adituak diren zenbait autoreren iritziak irakurri ondoren, esan daiteke sexismoa oso gai kezagarria dela oraindik gure gizartean. Gaur egun aldaketa bat gertatzen ari da, baina oraindik bide luzea dugu egiteko genero-berdintasunean oinarritutako gizartea lortu arte.

Nahiz eta hain haur txikiak izan, ikerketa hasi zenetik genero estereotipoak barneraturik zituztela eta hauek errepikatzen zituztela nabaritzen zen. Batez ere, berdinaren arteko harremanetan ikusgaia zen nola ematen ziren generoen arteko desberdintasunak, adibidez, jolasean. Mutilen jolasa kontaktu fisikoan eta mugimenduan oinarritzen zen eta nesken jolas sinbolikoan aritzen ziren gehiago, lasai. Gainera, beraien buruetan oso egituratuta zuten zer elementu ziren neskenentzat eta zein mutilentzat, ideia horiekin bat ez zetorren edozer ukatuz.

Adibidez, argi zuten suhiltzaileen lanbidea mutilentzat soilik zela. Egun batean, korroan, galdetu nuen nork nahi zuen suhiltzaile izan. Neska batek ere ez zuen eskua altxatu, eta galdetu nuenean zergatik, erantzun zidaten hori mutilentzat zela. Orduan, neska suhiltzaile baten argazkia erakutsi nien, eta jarraian, neska asko eskua altxatzen hasi ziren suhiltzaile izan nahi zutelako esanez. Adibide honen bidez, neskei antzezpen-ereduak eskaintzeak duen garrantzia ikus daiteke.

Ikerketaren bidez ikusi dugu nola txikitatik mutilek indarrarekin identifikatuta sentitzen diren, bai adjektiboaren aukeraketaren bidez eta bai pertsonaiaren aukeraketan

(Hulk indarraren eredu da). Neskek, berriz, portaera eta pertsonaia maitagarria eta lasaiarekin identifikatzen dira.

Gehien harritu ninduen atala etxekolanen galdetegia izan zen. Jasotako erantzunak hain estereotipatuak izan zirenez gauza berdina espero nuen galdera hauetan. Familien barruko dinamikak behatu eta gero, esan beharra dago, etxekolanen zama gero eta orekatuagoa dagoela bikotearen artean. Hau erantzunetan islatu zen eta oso komenigarria da haurrek etxeke lanak modu orekatuan banatzen direla ikustea, genero-berdintasunetik hurbilago dauden portaerak har ditzaten.

Ikusitakoaren arabera, genero desberdintasunak familian sortzen eta transmititzen dira eta gero, eskolan finkatzen dira. Gizarte patriarkal batean jaio eta hezi garenez, modu inkontzienteki errepikatzen ditugu jarrera sexistak, eta irakasleak gizakiak direnez ere, nahi gabe horrelako portaerak izan ahal dituzte. Hala ere, gaur egun, eskolan gero eta gehiago lantzen dira gai hauek, eta hobetzeko aukerak eskaintzen dira. Ikerketa honetan ikusi denez, haurrek hartu dituzten genero estereotipo eta rol gehienak familiatik datoz. Adibidez, haur batek esatea amak ez diola uzten azazkalak margotzen, edo negar egitea neskena dela.

Marko teorikoaren atalean ikusi genuen bezala, aldaketa gertatzeko gakoa hezkidetza da. Ikasgelan neskak eta mutilak tratatu berdina jaso behar dute eta aukera-berdintasuna eman behar zaie. Horregatik, hurreko guztia kontuan hartuz, oso garrantzitsua da familia eta irakasleak gai horien inguruan formatzea.

Lana egitean aurkitu ditudan zailtasunetako batzuk izan dira, adibidez, genero-desberdintasunetan soilik oinarritzea eta alde batera uztea erabat, arrazakeriagatik, homofobiagatik edo gaitasunengatik bereizkeriagatik sortutako desberdintasunak, eta horiek ere garrantzitsutzat jotzen ditut. Uste dut lana hobetu daitekeela, maila handiagoko ikerketa eginez, datu errealagoak izateko eta ez soilik ikasgela bati buruzkoak. Halaber, uste dut aberasgarria izango litzatekeela hurrekin proiektuak egitea gai horiek eskolan lantzeko, baina askoz ere denbora gehiago beharko luke eta, seguruenik, arlo horretan informazio gehiago duten pertsonen laguntza.

Indarguneei dagokienez, oso lan interesgarria izan da, eta abantaila bat izan dut: gaia beti interesgarria iruditu zait eta horregatik, gaiari buruz informatuta egon naiz beti. Lan honi

esker, gehiago sakondu ahal izan dut nire jakintzetan, eta konturatu naiz irakasle batek generoari buruz jakiteak duen garrantziaz. Idazteko orduan, euskaraz egiteak lagungarria izan da bere hizkera inklusiboari esker, ez baitu emakumeen eta gizonen arteko bereizketarik egiten. Generoa eta sexismoa gaiarekin lotutako bibliografia aurkitzea erraza izan da, gaiarekin lotutako lan asko daudelako eta artikulu eta autore oso garrantzitsuak ezagutzeko aukera izan dut.

Laburbilduz, gradu-amaierako lan honi esker, interesatzen zitzaidan gai horretan sakontzeko aukera izan dut eta haur-hezkuntzako gela erreal bateko gaur egungo egoera zein den jakiteko. Gainera, berdintasunean heztearen eta egoera bidegabeen aurrean ahotsa altxatzearen garrantziaz ohartzea.

8. Bibliografia

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculum zehaztuta eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a.

Acevedo, E. (2010). El currículo oculto en las enseñanzas formales. Aspectos menos visibles a tener en cuenta para una educación no sexista. *Temas para la educación*, bol (11), 1.

EDUCACIÓN 3.0. (2018). *¿Cómo se crean los estereotipos de género en el aula?* Hemendik hartuta:

<https://www.educaciontrespuntocero.com/noticias/estereotipos-de-genero-aula/>

Eisner, E. (2002). *The educational imagination: On the design and evaluation of School Programs*. Pearson.

Eusko Jaurlaritza. (2019). *Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean*. Hemendik hartuta:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/92020191e_II_hezikidetza_plana_berdintasuna_eta_tratu_onaren_bidean_2019_2_023.pdf

EUSTAT. (2020). EUSTAT hemendik hartuta:

https://www.eustat.eus/estadisticas/tema_300/opt_0/tipo_1/ti_alumnado-profesorado-y-centro/s/temas.html#el

González, B. (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género. *Comunicar*, bol (12), 83.

Herrero, M. (2020). *Estereotipos de género en la infancia*. Hemendik hartuta:

https://www.um.es/documents/2918258/18874499/Escrita_CCSS_IES+Marqu%C3%A9s+de+los+V%C3%A9lez+-+copia.pdf/c7ef9de9-2c53-46a4-a148-bd2e36df5002

Moreno, E. (2000). *La transmisión de modelos sexistas en la escuela*. In Santos, M. (Ed). *El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar*. (12-32 orr.). Grao.

Nalbisua. (2012) Behaketa Aurkezpena 1 [Powerpoint diapositiba]. Slideshare:
<https://www.slideshare.net/nalbisua/behaketa-aurkezpena-1>

Salas, B. (1997). Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida. Gasteiz: Emakunde.
Hartuta hemendik:
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf

Santos, M. (2000) [koord]El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar. Grao.

STEILAS. (2015) Eskolan sexismoa transmititzeko erak. *Martxoak 8 aldizkari monografikoa*, bol (1), 16–17.

Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: La coeducación hoy. *Revista Iberoamericana De Educación. Volumen I* (6), 11.

Taberner, J.L (2009) *Soziologia eta hezkuntza*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Eranskinak

1. ERANSKINA: Galdetegia egiteko egileak diseinatutako fitxak.

Hauetako jostailuen artean, zeintzuekin jolastu ahal dute neskak eta zeintzuekin mutilak?

Adjektibo hauen artean zu zara....

INDARTSUA **MAITAGARRIA** **AUSARTA**

Bi kolore hauen artean zein gustuko duzu gehiago?

Lanbide hauen artean zeintzuk dira emakumeentzat eta zeintzuk gizonentzat?

Mozorro hauen artean zein jantzi ahal dezakete neskek eta zein mutilek??

Etzerakolan hauen artean zeintzuk egin ahal dituzte emakumeek eta zeintzuk gizonek?


Kirol hauen artean zeintzuetan parte ahal dute neskak eta zeintzuetan mutilak?



Arropa eta apaingarri hauen artean zeintzuk erabili ahal dituzte neskak eta zeintzuk mutilak?



Hurrengo pertsonaien artean, zeinekin sentitzen zara identifikatuta?



2. ERANSKINA: Behaketa sistematikoa egiteko egileak diseinatutako taula.

IRAKASLEAK	
Jarrera	
Baloreak	
Gatazken kudeaketa	
Gaiaren lanketa	

IKASLEAK	
Harremanak	
Rolak	
Arropa	

MATERIALAK	
Etiketrik ekarritako jostailuak	
Gelako objektuekin harremanak	
Ipuinak	
Filmak/Marrazki bizidunak	
Abestiak	

FAMILIAK	
Familia ereduak	
Nor joaten da haurraren bila	
Nor joaten da tutoretzetara	
Etxekolanen banaketa	